

Peru



Bizikletan hobeto


Peru hegoaldea eta erdialdean barrena, inguru eder anitz topa daitezke: Andeak, goi-lautada, Titikaka lakua, Macchu Pichu... Bizikleta lagun, turistak heltzen ez diren herri galduak ezagutu eta bertakoen bizimodu xume bezain aberatsaren xehetasun asko jasotzen dira. Hau guztia merke-merke, gainera. Opor erosoekin oroitzeko tartea ere bada sei astetan, 1.300 kilometroko zeharkaldian. Etengabe 3.500 metrotik goiti bidaiatzearen 'oztopo' bakarretakoa da.

Testua: Andoni Urbistondo
Argazkiak: Mikel Egaña

ONGIETORRIA ez da batere samurra Liman. 12-13 orduko hegaldi nekearen ostean, Peruko hiriburua estaltzen duen behelaino trinkoak (garua) ematen dio lehen agurra bisitariari. Aireportuaren kanpoaldean, 12 milioi biztanleko hiriaren errealitatea modu zatarrean ezagutzen da. Dozenaka pertsona hurbiltzen dira ostaturainoko garraioa eskaintzera, oihuka, turisten sosena bila.

Lima hiri itsusia da, kontraste handikoa, eta trafikoa, arriskutsua. Kaleetan bizikletan ibiltzea Peruko hizkuntzako biraoak berehala ikasteko ariketa ona da. Erakargarritasunik ezean, Arequipara, hegoaldera joan ginen. 1.000 kilometroko bidaiak autobusean, Panamerikana errepidean barrena.

Arequipako eskualdea idorra da oso. 2.300 metroan altxatzen da eta hurbil, zaindari, Misti (5.822) eta Chayani (6.051) sumendiak daude, elurtuta. Bizikleta zeharkaldiari ekin aurretik, zetorkigunaren berri eman ziguten: «Punora zoaztela bizikleta eta pisu horrekin? Ez zarete iritsiko», esan zigun perutar batek; «20 kilo galduko dituzue», alboko lagunak. Une hartan umoretsu entzun genituen ohar horiek, baina egun batzuetako bueltan askotan gogoratu ginen hitz madarikatu haiekin.



Machu Picchu eta Wayna Picchuko ikuspegia.

zeharkaldiko kideak

Ramon Arrizabalaga
Unai Muñoz
Mikel Egaña
Aitor Dorronsoro
Andoni Urbistondo

Hasiera gogorra: aldats luzeak eta 'soroche'-a

Hasi eta berehala 45 kilometroko aldapa igo genuen, 2.600 metrotik 4.300 metro arte, eta soroche-arekin, altuerako gaitzarekin, dezente sofritu: Buruko mina, bihotz taupada azkarrak... Ur terminal goxoekin osatu ostean berriz ekin genion bideari, goi lautadan barrena, 4.000 metrotik goiti. Ibilaldian, bakartasuna sentitzen da. Bikuinak eta alpaka bakarrik bizi dira han, eta artzainen bat haiek zaintzen. Neguan, haize hotza eta -10 eta -15 gradu arteko hotzberoa izaten dira 12 orduko gauetan. Inguru bakarti horretan dago Imata, 4.300 metrora. Ez dago ez argindarrik, ez telefonorik, ezta edateko urik ere. Are gutxiago ostatu edo jatetxerik, baina gringo ezezagunok goxo afaldu eta epelean igaro ahal izan genuen gaua. Han ezagutu genuen lehen aldiz perutarren laguntasun zintzoa. Leku turistikoetan, atzeritarra jainko moduan hartzen dute, baina dirua tartean ez dagoenean ere bai, gure harridurarako.

Bizi baldintza gogorrak

Imatako eskolako irakaslea da Jose Antonio Cornejo. Beste hiru kidearekin 87 haurren irakaskuntzaz arduratzen da. «Hemen

Eguzkia gurtzen x Tres Cruces behatzaileak lehen printzekin batera, urrutitik etorritako perutarren gurtzen dute eta esker ona adierazten diote otzari. Guztia hotzari ahal bezala aurre eginda.



bizitzera zaila da oso. Lanorduetatik at ez dago zereginik. Argia, telefonoa... eta gisako ondasunak ez edukitzea gogorra da», azaldu zigun. 500 sol irabazten dituzte hilean (30.000 pezeta, 1.200 libera), eta greba ugari antolatzen dituzte Gobernuari 2.000 soleko soldata eskatzeko.

Punora bidean, Lagunillas tren geltokian ezagutu genuen lan ordutegi finkoa betetzen duen langile kuadrila bakarretakoa. Trenbide trabesak aldatzen jarduten dute, 100 dolar pasatzeko soldataren truke (20.000 pezeta inguru). Jaiegun bakarra dute 15 egunetik behin. Aukera hoberik ezean, langileek pozik betetzen dute lana, «gosea ez pasatzeko bide bakarra baita».